

PROGRAMA

KOLOKIOA

**HIZKUNTZA ETA KULTURA
BIZIBERRITZE KONTESTU BATEAN:
BEREIZ OTE DAITEZKE?**

**Ipar Euskal Herriko goi mailako
arte eskola (ESAPB) - Anfiteatroa
Baiona**

2025-EKO AZAROAREN 5-6 AN

© LORENTXA SARAGUETA



Munduko kultur aniztasunaren gaineko mehatxua (hizkuntza aniztasuna honen funtsezko osagaia delarik) UNESCOren kezken muinean da. Euskal Herrian ere beldur horrek oihartzun berezia du: hizkuntza eta adierazpen kultural ezberdinak biltzen dituen lurralde honetan, euskal kultura aberatsa eta dinamikoa bada, kohesio sozialaren bektore, hauskorra da aldi berean.

Horren aitzinean, abiadura galtzen ari diren praktika kulturalen, tradizioen, hizkuntzen eta ohituren zaintzeko eta berpizteko ahaleginak plantan ezarriak dira. Prozesu horri « Kultura biziberritzea » deritzogu.

Soziologia, antropologia eta hizkuntzalaritza bezalako diziplinen garapenak eragin handia izan du hizkuntzaren eta kulturaren arteko erlazioei buruzko teorietan, elkarrengan eragina dutela frogatuz. Hizkuntza, babestu behar diren kultura gutxituen elementu bereiztezina den bezala, UNESCOk garatzen dituen tresna normatiboek erakusten dute, bestalde, hizkuntza gutxituak biziberritzeko, hizkuntza politiken esparru hertsitik at doazten ekintzak behar direla garatu.

Beraz, hizkuntzaren eta kulturaren arteko lotura frogatua bada, nola adierazten da konkretuki? Zer heinetan hizkuntzak eta kulturak elgar eragiten dute ? Lotura hau beti bistakoa ote da? Zerk funtzionatzen du, zerk ez? Munduan zehar eramaiten ari diren biziberritze kultural prozesuen erronkak, aukerak eta zailtasunak zein dira ?

Ikerlari ezberdinak galdera ezberdin horien galdezkatzera gomitatuko dira eta hitzartzeek nazioarteko eta bertako esperientzia eta dinamika ezberdinak agerian emanen dituzte (Euskal Herrian, Europan eta haratago).

N.B. : Mintzaldi guziak euskarara edo frantsesera itzuliak izanen dira. Jatorrizko hizkuntza pastilla batekin seinalatua da.

AZAROAREN 5A, ASTEAZKENA

16:00
17:00 HARRERA ETA BISITA KOMENTATUA

Euskal
museoa

- FR 16:00 Bernat Etxepareren oinarriko Linguae Vasconum Primitiae obraren inguruko bisita (frantsesez)
- EU 16:30 Bernat Etxepareren oinarriko Linguae Vasconum Primitiae obraren inguruko bisita (euskaraz)

18:00
20:45 FILM EMANALDIA ETA TRUKAKETA

L'Atalante
zinegela

18:00 Kneecap filmaren emanaldia (Rich Peppiatt, 2024), VOSTF, eta ondotik trukaketa, Bernadette O'Rourke-ren (Glasgow-ko unibertsitatea) presentziarekin

AZAROAREN 6A, OSTEGUNA

ESAPB

8:45 Harrera
9:15 Kolokioaren irekiera

9:30
12:30 HIZKUNTZA ETA KULTURAREN ARTEKO HARREMANAK :
ERRONKAK ETA AUKERAK

- EU 9:30 Kulturatik hizkuntzara eta bertzaldera: Ipar Euskal Herriatik mundurat **Xabier ITÇAINA**, Sciences Po Bordeaux
- EU 10:10 Hizkuntza eta kulturaren arteko filiazioa: zer diote zuzenbideak eta euskararen aldeko hizkuntza politikek? **Eneritz ZABALETA**, zuzenbidean doktoreduna
- 10:50 Pausa
- EU 11:10 Hizkuntza eta kultura. Gogoetak hurbiletik eta urrunetik **Jon SARASUA**, Arrasate-Mondragón unibertsitatea
- FR 11:50 Sorkuntza eta folklorizazioa: Korsikera eta Gallura, hizkuntza-kultura harremanaren bi kontzepzio **Marina BRANCA**, Korsikako unibertsitatea

12:30 Bazkari pausa

14:00

15:30

KULTURA DEFENDATU HIZKUNTZA GABE (ETA BESTALDERA)?

FR

14:00 Kultura bat defendatu hizkuntza kontuan hartu gabe? Okzitaniaraz Frantzian, begirada kritikoa

Sara BRENNAN, Toulouse Capitole unibertsitatea

FR

14:30 Hizkuntza defendatu oinarri kulturaletik at? Britainiako hizkuntzen defentsarako mugimenduetako zehaztasun eta kontakizun ezberdinduak

Jeanne TOUTOUS, Rennes 1 unibertsitatea

15:15 Pausa

15:30

17:30

HIZKUNTZA ETA KULTURAREN ARTEKO HARREMANA BERRASMATU

EU

15:30 Hazparneko Libertimendua, inauteri kultura eta gazteen agentzia

Aitzpea LEIZAOLA eta **Agurtzane ELORDUI**, Euskal Herriko unibertsitatea

EU

16:00 Hizkuntza biziberritu, kultura berrasmatu : hiztun berrien errola ingurune hiritarrean (Irlanda, Eskozia, Galizia)

Bernadette O'ROURKE, Glasgow-eko unibertsitatea

EU

16:45 Bururatze solasa

Francis JAUREGUIBERRY, Paueko eta Aturrialdeko unibertsitatea

Informazioak

Euskal kultur erakundea

Lota Jauregia

64 480 UZTARITZE

www.eke.eus | www.etnopoloa.eus

0 (033) 5 59 93 38 74

info@eke.eus

Urririk

<http://2025.etnopoloa.eus>

Antolatzaileak



EUSKAL KULTUR
ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL
BASQUE



Université
**BORDEAUX
MONTAIGNE**



UMR 5319
Passages



Musée Basque
et de l'histoire de Bayonne
Baionako Euskal Museoa

Antolatzaileak

